



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

I. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2015eko maiatzaren 13, 14 eta 15
Durango, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK

**IKD GAZtE: ikaslea bere
ikaskuntzaren gidari bilakatzen
denean**

O. Calderon eta L. Ortiz

266-271 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.i.35>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



IKD GAZtE:

ikaslea bere ikaskuntzaren giradari bilakatzen denean

Calderon, O., eta Ortiz, L.

Ikasleriaren ahalduntzea, Ikaskuntza-Irakaskuntza metodologia berriak eta Ekimen Sena

Kontakturako e-posta: ocalderon001@gmail.com

lierni.ortiz@gmail.com

Laburpena

IKD GAZtE 2011/2012 ikasturtean jaiotako egitasmoa diziplina ezberdineko EHU/UPVko ikasleriak autogestionatzen dute, ikasleriaren ahalduntzea sustatzeko helburuarekin. Gipuzkoako Campuseko diagnostiko batean ateratako ondorioak aintzat hartuz, Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Modulua sortu zen eta ikerketa honen bitartez ondorioztatzen da moduluak ikasleriarengan ekimen sena, ikasten ikasi eta gaitasun zibiko eta sozialekin erlazionatutako kompetentziak nahiz bestelako zeharkako kompetentzia batzuk garatzea dakarrela. Hori kontutan hartuz, etorkizun hurbileko erronka nagusia moduluan kompetentzia gehiago garatzeko aukera zabaltzea eta ikasle, ikastegi zein eragile sozial gehiagoren inplikazioa izatea da.

Hitz gakoak: IKD GAZtE - Ahalduntzea - Ekimen Sena - Autogestioa - Interdiziplinarietatea - Modulua

Abstract

IKD GAZtE is a project born in the 2011/2012 academic course, self-managed by students from different disciplines of the UPV/EHU, with the purpose of promoting the empowerment of the student. Considering the conclusions of a diagnosis made in the Campus of Gipuzkoa, the Sense of Initiative Learning Module was created and, through this research, it is deduced that the module develops competences related to the sense of initiative, learn how to learn and social and civic aptitudes in the students as well as the development of some other transversal competences. Taking this into account, the main challenge for the near future is to expand the chance to develop more competences and to have the involvement of more students, faculties and social agents.

Keywords: IKD GAZtE - Empowerment - Sense of Initiative - Self-management - Interdisciplinary - Module

1. Sarrera eta motibazioa

Unibertsitatearen zentzua eta egitekoa testuinguru eta garai jakin bateko erritmoarekin lotuta soilik uler daitekeenez, unibertsitateak jendarteko garaiko dinamika sozial eta kulturaletara egokitu beharra dauka ezinbestean. Azken urteotan bereziki mundua azkartasunez eraldatzen ari denez, unibertsitateko curriculum orokorrak etengabeko eraldaketa horretan murgilduta dagoen eta ezjakintasanak agintzen duen XXI. mendeko gizartearen behar eta eskarrietara egokitu behar du erakunde bezala garatu ahal izateko. Unibertsitatearen egiteko nagusia beraz, bere esparruan gertatzen denarekiko kontzientzia duten eta sentikorak diren, etengabeko aldaketetara egokitzeko gaitasuna duten eta arazo berriei era sortzaile eta kritikoa erantzuteko pertsonak trebatzea eta formatzea da (Martínez et al., 2002).

IKD GAZtE proiektutik uste dugu, egungo unibertsitateak eraldaketa horretara egokitzeko ikaslea ikaskuntzaren erdigunean ipini beharra duela, zaharkitua dagoen irakasteko modu tradizionaletik ikaskuntza esanguratsura igaroz. Ulertzen dugu ikasleriak soilik horrela eskuratuko dituela era eraginkor batean arlo profesional eta pertsonalari ekiteko beharrezko gaitasunak. Horrekin adierazi nahi dugu errealitatea ez dela zerbait objektiboa, estatikoa eta esperientziarik gabea eta hortaz, ikaskuntza-irakaskuntzaren ideia transmisio hutsaletik ikas-komunitateak eraikitzena igaro beharko litzatekeela, irakasle-ikasle erlazio bertikaletik horizontalera igaroz eta pasibotasunetik aktibotasun eta ekintzailetasunerantz pasatuaz. Iruditzen zaigu soilik horrela lortuko dutela ikasleek arazoan aurrean kompetentziak izaten eta errealitatea ikertzen, eraldatzen nahiz eraikitzen.

Ezaugarri horiek errealitate bihurtzeko asmoz, ondoren zehaztasunez azalduko dugun IKD GAZtE proiektutik eredu tradizioaletik dialogikora salto egiteko bidean gabiltza. Salto horren eraginkortasuna ikerketa honetan zehar neurtzeko asmoz idazten dugu eskuarteko artikulua.

1.1. Zer da IKD GAZtE?

IKD GAZtE proiektua UPV/EHUko curriculumara garatzeko IKD (Ikaskuntza Kooperatiboa eta Dinamikoa) eredu formatiboaren magalean garatzen den egitasmoa da. Proiektua Talde Sustatzailea deituriko Gipuzkoako Campuseko diziplina ezberdineko ikasleriak autogestionatzen, koordinatzen eta dinamizatzen dute eta ikasleriari zuzenduta dago.

Egitasmo hau UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (SAE/HELAZ) barne garatzen da, Berrikuntza eta Gradu Ikasketen Errektoreordetzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo Sailaren eta zehazki esateko Gipuzkoa Ekintzailearen babes, finantzaketa eta lankidetzarekin batera. 2012/2013 ikasturtetik aurrera, IKD GAZtE Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Fundazioaren estrategiaren barnean txertatzen da eta Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzaren babesa eskuratzen du.

IKD GAZtE 2011/2012 ikasturtean jaio zen eta xede nagusia Gipuzkoako Campuseko ikasleriaren ahalduntzea, aktibazioa, inplikazioa eta ekimen sena sustatzea da, azken batean modu aktiboan ikasteko metodologia berriak ezartzeko prozesuan ikasleria bere irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren protagonista bilakatu eta inguru hurbilarekin inplikatuagoa egon dadin. Aldi berean, IKD ereduak babesten dituen balioen sentsibilizazioan parte-hartzea eta ikasleria ekintza lerro horien baitan mobilizatzea ere badu jomuga. Helburu horiek lortzeak ikasleria eta irakasleria botere egitura horizontalean kokatzea suposatzen du, horretarako mekanismo kurrikularrak eta extra-kurrikularrak sortuz. Ahalduntze hori ikasleen autonomiaren garapenaren bitartez eramatea da xedea, beren ikaskuntza prozesuaren ardura hartzearen ideia helaraztearen bitartez.

Proiektuaren lehen urtean, ikasleriaren egoeraren berri izateko asmoz, diagnostiko tailerrak eta sentsibilizazio kanpainak burutu ziren Gipuzkoako Campusean, ikasleei hitza emanaz. Parte-hartzaileen solasaldiak kontutan hartuz, ondorio batzuk atera ziren eta egungo ikasleriaren beharrak antzeman ziren. Behar horiek asetzeko asmoz, IKD GAZtEtik ondoren sakonago azalduko dugun Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Modulua diseinatu zen eta era piloto batean aplikatu eta ebaluatu zen 2012/2013 ikasturtean. Emaitzak emankorrak izan zirela aztertuta, iaz modulua birdiseinatu eta aplikatu zen eta ikasturte honetan, 2014/2015 ikasturtean alegia, berriro ere aplikatzeko lanetan gabiltza.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Arestian aipatutako diagnostiko tailerrek Gipuzkoako Campuseko ikasleriaren egoera islatu zuten, IKD ereduak proposaturiko ikaskuntza ereduak eta Europar Batasunak adierazitako zeharkako kompetentzien garapena kasu askotan betetzen ez zirela argitaratuz. Horregatik, IKD GAZtEk honako helburu orokor hau planteatzen du: Ikasleek ekimen sena, ikasten ikastea eta gaitasun zibiko eta sozialekin loturiko kompetentziak garatzeko zer egin daitekeen ikertzea. Hemendik abiatuz, Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Modulua sortu zen, hiru kompetentzia horiek garatzeko moduluaren diseinu optimoa zein izan litekeen aztertzen jarraitzen da orduz geroztik, betiere dinamika eta ikaskuntza metodologia berriek ikasleengan duten eragina zein den ikusiz.

Helburua ezarrita, ikerketarekiko ezarritako hipotesi nagusien berri ematea gustatuko litzaziguke:

- IKD GAZtE unibertsitate mailan eraldaketa sustatzen duen proiektua da.
- IKD GAZtEk unibertsitateko ikasleriaren ekimen sena potentziatzen du.
- IKD GAZtEk erabilitako metodologi aktiboak ikasleriaren ikaskuntza prozesua esanguratsu bihurtzen dute.
- IKD GAZtEk unibertsitatea osatzen duten komunitate osoaren rol aldaketa eragiten du, ikasleriaren protagonismoa gainjarriz bere ikaskuntza prozesuan.

3. Ikerketaren muina

Gipuzkoako Campusean burutu genuen diagnostiko tailerretatik jasotako ikasleen erantzunetan oinarrituz, ikasle hauek Europar Batasunak adierazten dituen zeharkako kompetentzien (EB, 2006) jabe egitea beharrezkotzat jo zen, bereziki ekimen sena, ikasten ikastea eta gaitasun zibiko eta sozialak bezalako kompetentziak eskuratzea. Behin ondorio horretara iritsita, unibertsitateak ikasleen interesak bultzatzeko ondoren aipatzen diren ezaugarri hauek barneratu beharko lituzkeela ondorioztatu genuen: perfil ezberdinetako pertsonen arteko lankidetzak, unibertsitate-gizarte harremana, ikaskuntzan autonomia eta ikaskuntza metodo berritzaileak. Paper ganean islatu genituen ezaugarri hauek praktikara eramateko, ostean gure moduluaren oinarri izan diren elementuak nola txertatu ahal genituen identifikatu genuen (Luque et al., 2014).

1. **Interes soziala duten proiektuetan oinarritua.** Gizarteko beharrei erantzuten dioten proiektu errealean aplikazioa.
2. **Elkar-lana.** Ikasle-ikasle, ikasle-irakasle, ikasle-gizarte eragile arteko lankidetzak.
3. **Interdiziplinarietatea.** Formazio ezberdineko ikasle taldeen arteko lankidetzak.
4. **Autogestioa.** Ikasleek %100ean burujabetasunez eta autonomiaz kudeatutako proiektuak.

Ezaugarri hauek guztiak barnebiltzen zituen eta errealitatean Gipuzkoako Campusean aplikatzea ahalbidetzen zuten ikaskuntza metodologia berritzaileen araketari ekin genion eta horietako hiru hautatu genituen gure proiektuari forma emateko, hain zuzen, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI), Ikaskuntza-Zerbitzua (IkZ) eta Design Thinking (DT).

Lehen metodologiak, errealitateko gaien inguruko proiektuak burutzea eta arazo errealak konpontzea du helburu nagusizat. Proiektua erreala dela kontuan harturik profil, lanbide, diziplina, hizkuntza eta kultura ezberdinetako jendearekin elkarlanean aritzea eskatzen duen metodologia da. Gainera, ikasleen kasuan, ikastegietan teoriarik bakarrik lan egitea saihestu eta proiektua aplikagarria izango dela jakiteak, ikaskuntza esanguratsua bilakatzen du (Galeana, 2006).

IkZ, POI mota bat da eta bere berezitasun nagusia eraikitako proiektuak gizartean sortzen diren behar sozialak asetzera bideratuak daudela da. Hau kontuan hartuz, proiektua aurrera eramanez ahal izateko gizarte eragile desberdinen lankidetzak eta parte-hartzea ezinbestekoa da. Modu honetan, ikasleen lana ekimen zibiko eta sozial bat bihurtzen da eta, beraz, ikaskuntza esperientzia aberastu egiten da, modu integralean garatzeko aukera emanez. Alde batetik, ikaskuntzak hobetu egiten du komunitateari ematen zaion zerbitzua, esku-hartze eraginkorrago bat ahalbidetzen baitu. Eta beste alde batetik, zerbitzuak zentzua ematen dio ikaskuntzari (Batlle, 2011).

Azken metodologia, DT, gaur egun objektuak sortzeko erabiltzen den diseinu eta berrikuntza metodo bat da, baina hezkuntza eta gizarte arloetako zerbitzu eta esku-hartzeetarako ere baliagarria izan ohi da. Metodologia honek pertsonari ematen die protagonismoa; bai diseinuan parte-hartzen dutenei bai produktuaren edo zerbitzuaren etorkizuneko erabiltzaileei ere. Diseinatzerakoan parte-hartzen duten guztiek lankidetzan jardun behar dute, hipotesiak proposatu eta frogatu behar dituzte, jarrera desberdinak integratu behar dituzte, erabiltzaileak kontuan hartu behar dituzte eta agertzen diren arazoei irtenbideak bilatu behar dizkiete (Brown eta Wyatt, 2010).

Ezaugarri eta metodologia hauetan oinarrituz Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Modulua diseinatu, aplikatu eta ebaluatu genuen DT metodologiaren laguntzaz.

3.1. Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Modulua


Moduluan Gipuzkoako Campuseko diziplina anitzetako ikasleek parte-hartzen dute eta haien eginbehar nagusia erakunde edota gizarte eragile batek proposatutako erronka bati aurre egitea da. Erronka gizarte eragile bakoitzak egunerokotasunetik antzemandako behar batetik eratortzen da. Ikasle talde bakoitzak proiektuaren sorkuntza errazteko eta gidatzeko, IKD GAZtE proiektuko kide den ikasle bat izan ohi du dinamizatzen, proiektuan praktika kontratu baten bidez lanean ari den ikasle bat hain zuzen.

Erronkari aurre egiteko, ikasleek autogestio bidez proiektu bat diseinatu, birdiseinatu, errealitatean aplikatu eta ebaluatu behar izaten dute, beraien ardura eta autonomia landuz ikasteko, lan egiteko eta erabakiak hartzerako garaian. Modulu guztian zehar ikasleen eta elkarte edota gizarte eragileen etengabeko harreman eta elkarrizketa egoten da, sortutako proiektuak beharra eraginkortasunez eta hurbiltasunez ase dezan bion arteko elkarlan eta adostasun eraikitzailearekin.

Ikasleak zortzi astez aritzen dira lanean, gizarte eragilearekin duten lehenengo kontaktutik proiektuaren aplikazioa eta aurkezpena egiten duten momenturaino. Taldeko kide guztiak astean behin elkartzen dira hiru orduz, baina hortaz gain beste hiru ordu ez-presentzial burutu behar izaten dituzte, guztira 50 orduko dedikazio bat eskainiz proiektuari. Denbora kopuru horrek 2 ECTSren balioa hartzen du, hau zentroekin eta irakasleriarekin aurrez adostutako ikasleen irakasgai batean txertatzen delarik, horrela garapen kurrikular bat bermatuz.

Lehenengo saioan moduluaren irekiera gauzatzen da eta ondoren, eragile sozialek beraien erronkak aurkezten dituzte eta parte-hartzaileen lehenetsunak kontutan hartuta taldeak sortzen dira. Hurrengo bi saioetan lan egiteko erremintak zehaztu ostean, egoeraren inguruko diagnostikoa egiten dute, marko teorikoa osatzen hasten dira eta dinamika ezberdinen laguntzaz prototipatzen dihardute. Laugarren saioan, ikasle taldearen eta eragile sozialaren topaketa gauzatzen da, normalean eragile sozialaren egoitzan, eta orain arteko proiektuaren diseinua aurkeztu eta adostasun batetara iristen dira, orain artekoa eraldatuz eta birdiseinatuz. Datozen bi saioetan proiektua bera hobetzen eta xehetasunez lantzen da eta zerbitzua gauzatzeko beharrezko material guztia nahiz aurrekontua zehazten da. Zazpigarren saioan proiektua errealitatean aplikatzen da, zerbitzu bat eskainiz eta erronkari erantzunez. Azken saioan proiektuaren, esperientziaren eta taldearen ebaluazioa gauzatzen da, proiektu guztiak aurkezten dira eta moduluari itxiera ematen zaio.

1. Irudia. Ekimen Sena bultzatzen duen Ikaskuntza Moduluaren egituraren laburpena.



Aipatutako ezaugarri eta metodologiak kontutan hartuz, puntu honen hasieran aipatutako kompetentziak garatu direla frogatzeko baliagarriak diren ebaluazio tresnen berri ematea ezinbestekoa da. Ebaluazioa kualitatiboa eta formatiboa da, hau da, prozesu osoan zehar gauzatzen da eta garrantziaren arabera bi zutabetan sailkatzen da, “mugarriak” eta “jarraipenezkoak”. Lehenak, moduluko ikaskuntzaren helburu garrantzitsuenak bete direla ziurtatu nahi du, gakoak diren momentuak islatuz. Bigarrenak, ordea, ikasleriaren eta taldearen garapeneren berri emateko balio diguten informazioa eskaintzen dute, zerbait espero moduan joaten ez bada momentuan aldaketak egiteko aukera emanez. Moduluan zehar dinamizatzaile bakoitza ebaluazio txosten bat osatzen joaten da mugari eta jarraipenak kontutan hartuz eta amaieran txosten guztiak komunean jarri eta moduluaren balorazio orokor bat gauzatzen da, emaitzak interpretatuz eta hobekuntza proposamenak eginez. Lehenengo taulan ebaluazioari buruzko xehetasunak agertzen dira, hain zuzen, zer den ebaluatzen dena, zenbatgarren saioan egiten den eta nola burutzen den.

1. taula. Ebaluazio mugarriak eta jarraipenezko ebaluazioa.

	Z ^a	NOIZ?	ZER?	NOLA?
MUGARRIAK	1	3.saioa	Erabiltzailea, gizarte eragilea eta erronka kontutan hartuz, era logiko batean informazioa bilatu, bildu eta bateratzeko gaitasuna. Marko teorikoa	Dinamizatzaile bakoitzak aurkitutako informazioa aztertuz, irizpide batzuk betetzen dituen fitxa baten bitartez.
	2	4.saioa	Egitasmo proposamena egokitzeko gaitasuna, gizarte eragilearekin izandako kontaktua eta elkarrizketa.	Dinamizatzaile bakoitzak topaketa edo bilera aztertuko du irizpideen arabera ebaluazio fitxa bat betez.
	3	7.saioa	Diseinatutako zerbitzuaren gauzatze egokia.	Ikasleen parte-hartzea eta jokabidea behatuz eta erabiltzaile eta eragile sozialei elkarrizketak eginez.
	4	8.saioa	Moduluan zehar eskuratutako ikaskuntza.	Proiektuaren, norbanakoaren, taldearen eta moduluen auto-ebaluazio, ko-ebaluazio eta hetero-ebaluazio fitxak betez.
JARRAIPENEZKOAK	1	3.saioa	Proiektuaren lehen iradokizuna: Ideiak proiektu bilakatu	Taldeek proiektuaren lortu nahi dituzten helburuak, proposatzen duten zerbitzua, bideragarritasuna, AMIA analisia eta erronkari aurre egiteko eraginkortasuna aztertuz galdera bidez antolatutako fitxa bat bete behar dute.
	2	4.saioa	Nola goaz?	Ikasleek fitxa bat betetzen dute, orain arte betetako eta ez betetako helburu eta igurikapenak islatuz, pertsonalki eta taldean positiboak diren eta hobetu beharreko aldagaiak azalduz eta orokorrean prozesua nola doan aztertuz.

4. Ondorioak

Bi urtez burutu den moduluen aplikazioaren esperientzia ikasle parte-hartzaileentzat oso positiboa izan dela ikusi dugu ebaluazio tresnetan ateratako nahiz dinamizatzaileek behaketaren bitartez antzemandako ondorioak aztertu, txosten batean islatu eta interpretatu ondoren.

Ebaluazioa tresna nagusitzat hartuz beraz, kualitatiboki ikus daiteke ikasle parte-hartzaileek helburutzat jarritako hiru konpetentzien garapen esanguratsua bizitzen dutela moduluen diseinuaren eta erabilitako metodologiaren ondorioz, hain zuzen ekimen sena, ikasten ikastea eta gaitasun zibiko eta sozialekin erlazionaturiko konpetentzia. Proiektua erreala izateak ikasleen motibazioa areagotzen du, honek aldi berean, inizatiba bultzatzen duelarik. Proiektua guztiz autogestionatua denez, ikasleek beraiek ikusi behar dute nola kudeatu proiektua. Hau modu egokian eginez gero, ikasten ikasteko konpetentzia garatzen da. Azkenik, proiektu guztiak eragile sozial batek planteaturiko erronka batean oinarritzen direnez, nahitaz egoera sozialen aurrean eduki behar den jokabidearen garapena jasaten dute. 2. eta 3. mugarrietan lortutako datu eta emaitzek hori frogatzen dute, talde guztiek lortzen baitute gizarte eragilearekin adostasun batera iristea eta proiektua modu eraginkor batean aplikatzea.

Hauetz gain, zeharka garatu nahi diren bestelako konpetentzia eta gaitasun batzuk ere lantzen direla islatzen du ebaluazioak, hala nola, talde lana, diziplina anitzeko pertsonekin lan egitea ikuspegi globala eskainiz erronkari, testuinguru eta erabiltzailearen ikerkuntza eta diagnostikoa, kontaktu erreala eta zuzena mantentzea unibertsitate kanpoko pertsonekin eta egoerekin, eragile sozialekin adostasun batera heltzea, proiektua hobetzea berrelikapenaren bitartez, proiektu erreala bati erantzuna ematea eta aplikatzea, proaktibitatea, ekintzailetasuna, IKTen erabilera, jendaurrean hitz egitea, aurrekontua doitzea eta beharrezko materialak zehaztea eta ikaskuntza esanguratsu bilakatzea.

Parte-hartzaileen autogestioa pixkanaka handiagotzen doanez prozesuak aurrera egin ahala, dinamizatzailearekiko autonomia hartzen doaz eta proiektua bere egiten dute, beren ikaskuntzaren gidari bilakatu. Honela beraien kabuz zeharkakoak diren konpetentziak ere garatzea lortuz. 4. mugarrian ikasleek egiten duten auto-ebaluazioan, ko-ebaluazioan eta hetero-ebaluazioan adierazitako ideiak ere konpetentzia hauen garapenaren froga dira, bertan taldeko partaide gehienek baieztatzen

baitute moduluaren hasieran baino konfiantza gehiago dutela beraien gaitasunetan. Ikasle batzuen ahotatik irten ziren esaldiek ere hau islatzen dute:

- “He superado con creces lo esperado al principio del módulo (...). He cambiado la forma de ver de las cosas, y ahora conozco diferentes formas de trabajar”.
- “Esperientzia ezberdina da, beraz oso baliagarria Pertsonalki, ikusten dut perspektiba ezberdinak lantzen eta ideia berriekin aberasten ari naizela.

5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Azken bi edizioetako emaitza arrakastatsua ikusirik, eta ikasleriak prozesuan zehar jasaten duen kompetentzien garapena baikortzat hartuz, etorkizunerako Gipuzkoako Campusean modulu handitzea da helburua. Honek ikasle, ikastegi eta gizarte eragile gehiagoren inplikazioa suposatuko luke batetik, eta modulu denboraz eta kreditu kopuruz handitzea bestetik. Azken puntu honek dinamika eta metodologia berriak praktikan jartzea ahalbidetuko luke, eta aldiz berean, zeharkako kompetentzia gehiagoren garapena.

Bestalde, gaur egungo moduluan kompetentzia gehiago garatzen direnaren hipotesia dugu, baina momentuz ez daukagu hauek ebaluatzeko metodorik. Hortaz, moduluak aurretik esandako zabalkunderik ez jasan arren, ebaluazio tresnen hobekuntza eta birdiseinu bat bilatuko da, horrela ikasleen garapenaren gertuago dauden datuak jasotzeko ateak zabalduz. Hau modu egokian planteatzearen, urtero moduluaren diseinuaren ebaluazio bat burutzen da eta aurreko urtekoetik abiatuz, aurten ere moduluaren birdiseinua martxan da, horrela 2014/2015 ikasturte honetan landu nahi ditugun kompetentziak ondo finkatuta utziz. Birdiseinu sistema honek modulu beti egungo egoerak eskatzen dituen beharrei eguneratua egongo dela bermatzen du.

6. Erreferentziak

Battle, R. (2011). ¿De qué hablamos cuando hablamos de Aprendizaje-Servicio? *Crítica*, (61), 49-54.

Brown, T., eta J. Wyatt. (2010). *Design Thinking and Social Innovation*. Stanford Social Innovation Review.

Europar Batasuna (2006). Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren gomendioa, 2006ko abenduaren 18koa, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzkoa. Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala, L 394/10, ES.

Galeana, L. (2006). *Aprendizaje basado en Proyectos*. *Revista electrónica*, CEUPROMED. <http://ceupromed.ucol.mx/revista/PdfArt/1/27.pdf> (Kontsulta: 2015/02/09).

Luque, B., Subiza, M., Irazabal, G., Suarez, M. eta Calderon, O. (2014). IKD GAZTE: autogestión, multidisciplinariedad y proyectos colaborativos para la adquisición del sentido de la iniciativa. *Tendencias Pedagógicas* (23) 127-140.

Martínez, M., Esteban Bara, F. eta Buxarrais Estrada, M. R. (2002). La universidad como espacio de aprendizaje ético. *Revista Iberoamericana de Educación* (29), 17-44.

7. Eskerrak eta aipamenak

Lehenik eta behin, eskerrak ematea gustatuko litzaiyuke Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo sailari, zehazki esanda, Gipuzkoa Ekintzaileari IKD GAZtE proiekturi eskainitako babes eta finantzaketagatik. Bestetik, aipamen berezia merezi dute EHU/UPVko Berrikuntza eta Gradu Ikasketen Errektoreordetzak, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzak eta Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Fundazioak, proiektu hau unibertsitatean garatzea posible egiteagatik. Bestetik, proiektu honetan murgilduta dauden EHU/UPVko komunitatea osatzen duten irakasleriari, ikasleriari eta administrazioari langileei nahiz gurekin lankidetzan diharduten eragile sozialei gure eskerrik beroenak ematea gustatuko litzaiyuke, paperean islatu dugun proiektua errealitatean aplikatzea ahalbidetzeagatik. Eta bukatzeko, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuari (SAE/HELAZ), IKD GAZtE egitasmoa bertatik sustatzeagatik eta IKD GAZtEko kide diren ikasleei proiektua maitasunez martxan jartzeagatik.